mirarte
CULTURA OCIO COMUNICACIÓN
cultura@noticiasdegipuzkoa.com

S.O.S.

Músicos, empresarios de conciertos y productores piden apoyo a la sociedad vasca para la música en vivo. PÁG. 52

'OBABAKOAK': 25 URTE >

BERNARDO ATXAGA
IDAZLEA

"Hizkuntza galtzeak beste lauki batean jartzen zaitu, subordinatuen laukian"

Bihar 'Obabakoak'-en etenik gabeko irakurraldia egingo da Arriaga Antzokian, goizeko zortzietatik aurrera, eta egitasmo honen harira bestelako omenaldi txikiak suertatu dira. Atxagak Bilbo besarkatu du beste behin (eta alderantziz), duela 35 urte egin zuen legez

IÑAKI MENDIZABAL ELORDI

BILBO. "Nire poemarik ezagunenak hemen sortu ziren, inguru honetan", eta Nerbioi zaharraren ertzetako bat seinalatzen du Atxagak, Abandoko tren geltokiari begira dagoena. "Niretzat Bilbora bueltatzea etxera bueltatzea da", dio, hiriko biztanle betierekoari (zirimiriari) aurre eginez. Frantzian presondegi batzuk bisitatu ostean, *Obabakoak*-en 25. urtemuga ospatzera etorri da bere gaztaroko hirira. Baina ospakizun eta omenaldien erdian, ezin ditu ahantzi preso bakartien begirakuneak: "Jende horren begirada leize bat da".

Gutun Zuria jaialdian ere hasi dira idazleak bidaltzen kartzelara...

Esperientzia izugarria da. Begirada apala, hila, makurtua dute presoek, gauza fisikoagatik, horma baino ez dutelako ikusten. Izugarria da beraien begiraden atzean dagoen beltza, hor sumatzen baita hurbil daudela heriotzaren mundutik. Esperantzarik gabeko begiradak dira; bakarrik daude heriotzarako.

Markatu egin zaitu kartzelako bisitak.

Hura ikusi eta *pena* hitza etorri zitzaidan burura. Errekuperatu beharreko hitz bat: *pena*. Bidaia honetan ikusi dut hitz horren ostean dagoenaren atzetik abiatu behar naizela.

Zenbat ikusteko...

Idazlearentzat hori da politena. Ni maistraren semea naiz eta ikastea da niretzat bizitzako gauzarik zoragarrienetakoa, horrelako lekuetan ibili, ikusi eta ikastea... Eta hitzen atzetik ibiltzea, hitzak aztertu eta bilatzea, hitz egokiak...

...eta hitzak ez dira 'inofensiboak'.

Ez. Behin baino gehiagotan nire koadernoetan idatzi dut Faustok emango zukeela bere arima gaztetasunaren truke, eta nik emango nukeela nirea hizkuntza zer den jakiteagatik. Hitz egiteko gaitasunak eraiki du psikea, espiritua, arima, nortasuna, gizatasuna... Prometeikoa da hitza, sortzailea erabat... Horregatik kontuz eta tentuz erabili behar da, esaldi batean hitz bakarra aldatzeak esaldiaren esanahia alda baitezake. Bai propaganda politikoa egiteko, jendearen kontzientzia pizteko, manipulatzeko, denetarako balio du... Esaterako, azkenaldi honetan izugarri pentsatzen dut azentuari buruz. Azentuan badago zer edo zer miresgarria, gure burmuinaren geruza konkretu batean eragiten duena, zaporeek eragiten diguten moduan. Eta idazki baten bitartez norbaiti burmuinaren alderdi hori aktibatzen diozunean, miresgarria suertatzen da.

Hitza horrenbeste zaindu guran, ez al zaizu idazte-prozesua neketsu egiten?

Tira, nik bidea egiten dut xehetasunetik, gertaeratxotik, hitz bat jasoaz... Hortik abiatzen zara eta ez dakizu nora joango zaren. Hor hasten da kontakizunaren genesia, eta horrekin asko disfrutatzen dut.

Prozesuaz, bideaz gozatzen duzu, beraz.

Bai, erabat. Nire idazteko modua

Arriagako kafetegian hasi zen Atxaga literaturgintzan. ARGAZKIA: DAVID DE HARO

'OBABAKOAK': 25 URTE

da. Abiatu eta idatzi. Hurrengoko egunean begiratzen dut zer idatzi dudan bezperan, eta agian aurkitzen dut helduleku bat, eta hortik segitzen dut, fikzioa bidea egitea baita.

Zure hurrengoko lana, 'Nevadako egunak', modu horretan landu duzu?

Bai, badu *Obabakoak*-en antza egituran. Esan dezagun esku artean daukadan liburu berri hau *Obabakoak* dela, baina ilea zurituta idatzi dudan *Obabakoak*. Eta horrek oso ezberdina egiten du.

Aspaldiko errealitate liriko eta mitikora bueltatuko zara?

Ez dut fantasiara joko, mundu hori urruti geratzen baitzait.

Badirudi 'Zazpi etxe Frantzian' hobeto ulertua izan dela kanpoan. 'Nevadako egunak' lanarekin ere arrisku hori ikusten duzu?

Agian Euskal Herrian badago nirekiko *neke* bat, guztiz ulergarria. Urte asko dira, beti hor ikusi naute, eta ni ez naiz bakarrik idazlea izan; izan naiz, baita, intelektual organiko moduko bat.

Kanpoko irakurleari begira idatzitako nobela izan zela ere entzun nuen behin.

Ondo, baina zer esan nahi dute horrekin? Faborez, literaturari buruz hitz egiten denean enpirikotasun apur bat eskatzen dut. Nire lanei buruz itzelezko astakeriak esan dituzte, eta batzuetan *agresibitate* puntu batekin, eta hori onartu behar da, baina nik eskatzen dudana da datuak erabiltzea. Adibidez, esan zuten *Behi euskaldun baten memoriak* erdaraz idatzi nuela eta gero euskarara itzuli. Nondik atera zuten hori? Eta *Zazpi etxe Frantzian* ere... Nolatan diote kanporako idatzia dela? Estatu Batuetan arrakasta izan duelako? Galdetu didate niri?

"Esan dute exotismoa bilatu nahi izan dudala kanpoko irakurlea erakartzeko. Nola dateke hori?"

"Prometeikoa da hitza, sortzailea erabat... Horregatik kontuz eta tentuz erabili behar da beti"

Batzuetan badirudi euskal idazlea beti 'euskal' izatera kondenatu nahi dugula.

Guztiok gara hangoak edo hemengoak, denok daukagu geure gain zama bat, estereotipo jakin bat, baina idazlearen zereginetako bat da estereotipo horiei aurre egitea, arazoei erantzutea. Hori da kontu bat, eta beste bat bertarako edo kanporako idaztea. Nola egiten da nobela bat etxerako eta ez kanporako?

Hogeita bost urte bete dira 'Obabakoak' publikatu zenetik. Itxaro Bordari paradoxa begitandu zitzaion liburua, lehen irakurrian, "euskara eta euskal literatura hiritartu behar zela aldarrikatzen zutenek kontakizunak giro neo errualaren baitan" kokatzen zituztelako.

Orduan ez zuen ezer ulertu. Esan dute, baita, exotismoa bilatu nahi izan dudala kanpoko irakurlea erakartzeko. Nola dateke hori? Adierazpen horiekin badirudi erregresio garaian gaudela, atzera egin nahi dugula denboran.

'Obabakoak' 'filologizatzeko' tentazioan ez zinen jauzi, behintzat.

Idatzi baino lehen teorizatu genuen horretaz. Argi geneukan kontu hori guztia Pott-en.

Eta narratzaile-zirikatzaile bihurtu zinen, fidagaitza.

Kaleidoskopikoa da *Obabakoak*, irakurleari planteatzen zaion joko bat, prestidigitazioa –batez ere liburuaren bigarren partea–, eta hor ez, ezin zara narratzaileaz fido.

Pentsatu zenuen, beraz, irakurlegoan.

Lehendabizi, beti pentsatu izan dut ez dudala merkekorik egin behar. Eta gero agian bai, hurbileko irakurlea izan nuen buruan.

Jon Kortazarrek idatzi zuen behin "mundu baten analisi psikoanalitikoa" dela ia-ia.

Obabakoak-en atzean dago hipotesi bat: Obaba eta leku horietan ez dela psikologiarik, ez dagoela Sigmund Freud. Eta horri soluzioa emateko animaliak erabiltzen dituzu, edo mamuak.

Argi dagoena da 'Obabakoak'-ek lerro sendoa markatu zuela euskal literaturan.

Garai hartan nik planteatu nuen inork planteatzen ez zuen hipotesia: euskaraz idatzi ahal dut, euskaraz idatzi eta izan naiteke idazle profesionala, eta itzuli daiteke beste hizkuntzetara ere. Eta orduan hipotesi hori egitea... Nik uste jendeak barre egiten zuela nire bizkarretik.

Garai ilunak ziren euskararentzat...

Bai, baina noiz hasi behar dugu euskaldungoaren *inferioritate* sentimenduaz hitz egiten? Izugarria izan da, nik ere sentitu nuen hori, baina isildu eta irentsi beharrean joera *agresiboa* hartu nuen horren aurrean. Garai txarrak ziren, baina etorri nintzen Bilbora nire bandera edo aulkia jartzera.

Zentzu horretan, 'inferioritate' gabeko literatur taldea izan zen Pott.

Mitxelenak, Arestik, Txillardegik eta Joxe Azurmendik sartu ziguten gure hizkuntza eta kulturarekiko harrotasun bat, eta guk horri eutsi nahi izan genion. Eta esan behar da inguruko abertzale askok eta agintean zeudenek ez zeukatela inolako konfidantzarik gure zereginean. Oraindik ere ikusten dut *inferioritate* sentimendu hori: laugarren mailako idazle bat etortzen da Madriletik eta gurtu egiten dugu.

Eta zein harreman duzu orain mundu 'obabatiarrarekin'?

Bertolt Brecht-ek esaten du poema batean "beti eramango dut nirekin basoetako hotza", eta nik esango nuke "beti eramango dut nirekin nire erreka zuloetako umela" edo horrelako zerbait. Nekazari jendea ezagutzen dut barru-barrutik, eta mundu hori izan dut oso maitea. Hori izan zen mundu bat espazio eta bakardade handikoa, eta nik maite ditut espazio horiek, baina bizitzan beste gauza batzuk ere badira, eta ematen du bi bizitza, bi aldi edo gehiago behar ditugula maite ditugun bide guztiak egiteko.

Euskararen etorkizunak kezkatzen zaitu?

Izan behar dugu oso arduratsuak euskararekin, hizkuntza galtzeak automatikoki beste lauki batean jartzen baitzaitu, *subordinatuen* laukian. Guk lehia egin behar dugu, baina kritikoak izan behar gara, hori da tresnarik onena, eta bestelako jokabideak ikusten ditut askotan gurean.

Itinerario 'Obabakoak'



1 'Obabakoak' se fue gestando en la cafetería del Teatro Arriaga, al calor de las reuniones de la banda Pott, formada por Joseba Sarrionandia, Jon Juaristi, Manu Erzilla, Ruper Ordorika, Jimu Iturralde y el propio Atxaga.

2 Atxaga escribe un guion de 80 páginas y lo presenta a un concurso de cortos que organiza Martin Ibarbia a principios de los 80.

3 El guion, titulado 'Bateko urria', es descartado ("era demasiado largo", aclara Atxaga).

4 Más adelante, Martin Ibarbia recurre a Atxaga y le invita a participar en unas emisiones radiofónicas ('Antzoki Iluna'). El asteasuarra confecciona varios relatos para el programa de radio ("era la primera vez que cobraba por unas piezas literarias", apunta el escritor).

5 Atxaga escribe el cuento 'Camilo Lizardi erretorearen etxean aurkitutako gutunaren azalpena', que dio pie a todo el 'universo Obaba' ("aunque lo escribí para la radio, aparté este cuento porque me di cuenta de que ahí podía haber algo más").

6 Atxaga concluye 'Obabakoak' en Escocia, siguiendo el hilo de 'Camilo Lizardi'.

7 Manda una copia a casa de "un amigo". A su regreso a Euskal Herria se da cuenta de que a uno de los cuentos le falta una página. Vuelven a ordenar y a editar el libro juntos.

8 La editorial Erein publica el libro en junio de 1988. Meses más tarde, Atxaga traduce algunos cuentos, que se publicarán "en una revista de Iruñea". La crítica y ensayista catalana Mercedes Monmany propone los textos para el Premio Nacional de Narrativa.

9 Atxaga recibe la noticia en casa, mientras estaba reunido con algunos amigos: "Me lo comunicaron por teléfono y no me lo podía creer. Era una cosa irreal, impensable por aquel entonces. Cuando regresé junto a mis amigos, lo comenté y nos reímos todos. Era algo inconcebible".

10 El escritor guipuzcoano no llegó a traducir la obra completa, y tanto Monmany como el euskaltzain Ibon Sarasola defendieron el ciclo de cuentos en Madrid. Como es sabido, le otorgaron el Premio Nacional (1989).

11 Un año más tarde, 'Obabakoak' opta al I Premio Europa de literatura. El empate entre Saramago y Atxaga propicia la 'victoria' de Jean Echenoz ("hubo grandes debates y al final decidieron un camino intermedio, dejando de lado tanto a Saramago como a 'Obabakoak'", desvela Atxaga, que sin embargo quedó impresionado cuando una de las juezas, la prestigiosa escritora y filóloga Antonia Susan Byatt, proclamó en su intervención que para ella la ganadora moral era 'Obabakoak': "Aquello me abrió las puertas de Inglaterra, porque media hora más tarde ya tenía a tres editoriales inglesas interesándose por el libro".

Edición de Erein, presentada ayer, junto a la de Alfaguara (que incluye ilustraciones de Marta Cárdenas).

Ediciones "actualizadas" de Erein y Alfaguara

AMBAS PUBLICACIONES INCLUYEN "MAGNÍFICAS" **ILUSTRACIONES** DE LA DONOSTIARRA MARTA CÁRDENAS

BILBAO. Mañana tendrá lugar en el Teatro Arriaga de Bilbao la VI edición de las Lecturas Ininterrumpidas de clásicos en euskera, una actividad que organiza el euskaltegi Bilbo Zaharra y que reúne a más de 400 personas, que se encargan de leer la obra en cuestión. Este año el libro elegido es *Obabakoak*.

Bilbo Zaharra adecenta con sendas conferencias esta cita peculiar y multitudinaria. Hoy será el turno de Iñaki Irazu (hermano de Atxaga) y Joxan Goikoetxea (19.00 horas), que abundarán sobre las bondades del libro en la Karpa 2.0, situada enfrente del Arriaga. Durante estos días la carpa también acoge multitud de actividades en las que se han visto involucrados centenares de alumnos del centro.

Erein y Alfaguara han querido sumarse a la iniciativa de Bilbo Zaharra. Aprovechando el 25 aniversario de *Obabakoak*, ambas editoriales han presentado versiones "actualizadas" de la obra del escritor de Asteasu. El editor de Erein, Iñaki Aldekoa, subrayó ayer la importancia de una obra que "marcó un antes y un después en la literatura vasca". Aldekoa reveló que esta nueva edición en euskera recoge "algunas correcciones y pequeñas actualizaciones", además de ilustraciones de Marta Cárdenas.

Alfaguara presentó también una nueva versión de la traducción publicada en esa misma editorial en 2007. Pilar Reyes, editora de Alfaguara, defendió ayer la importancia de una obra de semejante magnitud, y avanzó que esta edición se distribuirá también en América Latina: "Creemos que es una obra a la que siempre merece la pena volver. En esta ocasión incluimos el documental que Arbelaitz realizó sobre el escritor (*Lugares vacíos, palabras llenas*), una serie de postales con las magníficas ilustraciones de Marta Cárdenas, y una separata que contiene dos conferencias jugosas y sorprendentes de Atxaga".

Marta Cárdenas asistió también a la presentación de las nuevas ediciones. La artista donostiarra dijo que para ella ilustrar *Obabakoak* "no ha sido un trabajo"; al contrario, "ha sido una fiesta, un auténtico disfrute". >I.M.E.